Ordiziako Udala

2023GOIO0006

**Ordiziako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektorea suspertzeko bonuen salmenta kanpaina.**

***Campaña de venta bonos para incentivar el comercio local, la hostelería y el sector servicios de Ordizia***

## 1.Kanpainaren xedea.

Erosketa bonoen kanpaina honek dirulaguntza izaera du eta Ordiziako merkataritza, ostalaritza, eta zerbitzuetako kontsumo-aktibitatea sustatuko duen bonu sistema sortzea du helburu.

Bonoen kanpaina honek 30,00€ko balioko 3.000 bono jarri nahi ditu zirkulazioan, herriko establezimenduetan gastatzeko, eta adinez nagusi den pertsona bakoitzak bono bakarra eskuratu dezake. Betebehar hau betetzen dela egiaztatzeko NANaren fotokopia eskatuko da.

Diru-laguntza lerroa izanik, onuradunak kanpainan parte hartzen duten Ordiziako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetako establezimenduak izango dira.

30,00€ko erosketa bono bakoitzagatik bezeroak 20,00€ ordainduko du, eta Udalak 10,00€.

Programaren helburua herriko establezimenduetan salerosketak sustatzea da, herriko ekonomia bultzatu eta bertako kontsumoa indartu eta sustatzeko.

## *1.Objetivo de la campaña.*

*Esta campaña de bonos de compra tiene carácter de subvención y tiene como objetivo crear un sistema de bonos que fomente la actividad comercial, hostelera y de servicios del municipio de Ordizia.*

*Esta campaña de bonos pretende poner en circulación 3.000 bonos por valor de 30,00€ para gastar en los establecimientos de la localidad y permitirá a cada persona mayor de edad adquirir como máximo un bono. Para ello se requerirá a la persona compradora copia del DNI.*

*Al tratarse de una línea de subvenciones, los establecimientos beneficiarios serán aquellos comercios, establecimientos hosteleros o de servicios de Ordizia que se adhieran a la campaña.*

*Por cada bono de compra de 30,00€ la clientela pagará 20,00€ y el Ayuntamiento 10,00€.*

*El objetivo del programa es incentivar la compraventa en los establecimientos del municipio para impulsar la economía local.*

## 2.Establezimendu onuradunak.

Onuradunak kanpainan parte hartzen duten Ordizia helbide fiskala duten merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetako establezimenduak izango dira.

Ordiziako Udalak salgai jarritako 30,00€ko balioko bonoa erostean, bezeroek 20,00€ ordainduko du eta udalak gainerako 10,00€ak jarriko ditu, eta hori izango da, hain zuzen, jasoko duen diru-laguntza establezimenduak bezeroei deskontua egin ahal izateko.

## *2.Establecimientos beneficiarios*

*Los establecimientos beneficiarios serán aquellos comercios, establecimientos hosteleros o de servicios con domicilio fiscal en Ordizia que se adhieran a la campaña.*

*La clientela que adquiera uno de los bonos que pondrá a la venta el Ayuntamiento de Ordizia abonará 20,00€ y el Ayuntamiento aportará otros 10,00€, que será la subvención que el comercio podrá ofrecer como descuento a la clientela, de forma que el bono tendrá un valor*

*de 30,00€.*

Bonoen banaketa NAN zenbaki bakoitzari lotua egingo da. Horrela, pertsona bakoitzak bono bakarra erosi ahal izango du gehienez.

*La distribución de los bonos se realizará asociada a cada número de DNI, de forma que cada persona pueda adquirir como máximo un bono.*

Erosketa bakoitzean gehienez 2 bono erosi ahal izango dira 2 NAN ezberdinekin.

*En cada compra se podrá adquirir un máximo de 2 bonos con 2 DNIs diferentes.*

Bonuak eskuratzeak dokumentu honetan jasotzen diren oinarriak onartzea dakar.

*La adquisición de bonos supone la aceptación de las bases que se recogen en este documento.*

**3. Finantzaketa.**

***3.Financiación.***

Bonoak finantzatzeko gehieneko kreditua 30.000,00 €koa da.

*El crédito máximo para financiar bonos es de 30.000,00 €.*

Ordiziako Udaleko 2023ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorretako 1.471.08.430.00.0261 (2023) partidari egotziko zaizkio bonuak.

*Los bonos se imputarán a la partida* 1.471.08.430.00.0261 (2023) *de los Presupuestos Generales del Ayuntamiento de Ordizia para el ejercicio 2023.*

Efektu hauetarako ORDIZIAN merkataritza elkarteak entitate laguntzaile gisa jardungo du eta dirulaguntza Udalak elkarteari gauzatuko dio aurretiazko ordainketa bidez.

*A estos efectos, la asociación ORDIZIAN actuará como entidad colaboradora, y el Ayuntamiento otorgará la subvención a dicha entidad en la modalidad de pago anticipado.*

**4.Bonoen ezaugarriak eta erabilera baldintzak.**

***4. Características y condiciones de uso de los bonos.***

Bezeroak nola erabiliko ditu bonoak:

*Utilización de los bonos por parte de la clientela:*

—Bonoen prezioa eta balioa.

*—Precio y valor de los bonos.*

30,00 €ko balioa duten bonoak salduko dira. Bezeroek, bono bakoitzeko 20,00 € ordainduko dute. Gainontzeko 10,00€ak udalak jarriko ditu.

*El Ayuntamiento de Ordizia venderá bonos con valor de 30,00 €. La clientela pagará 20,00 € por bono. Los 10,00 € restantes los aportará el Ayuntamiento.*

—Non eta noiz eros daitezke bonoak.

*—Dónde y cuándo se pueden comprar los bonos.*

Bonoak oinarri hauek argitaratu ondoren salduko dira, Udaleko web orrian argitaratutako egunetan, astelehenean eta asteartean, ordutegi jarraian, 9:00etatik 19:00etara ORDIZIAN elkartearen bulegoan, Andre Mari kaleko 21ean. Agortuko ez balira, elkartearen bulegoan erosi ahal izango dira, irekiera ordutegi arruntean,

*Los bonos se venderán una vez publicadas estas bases, en los días publicados en la página web del Ayuntamiento, el lunes y martes, en horario continuo de 9:00 a 19:00 en la sede de la asociación ORDIZIAN, en el nº 21 de la calle Santa María. Si no se agotan, se podrán adquirir en las oficinas de la Asociación*

bonoak agortu arte.

*dentro de su horario de apertura, hasta agotar las existencias.*

Bonua erosteko unean bertan ordaindu behar da.

*Los bonos deben pagarse en el mismo momento.*

— Bonoak erabiltzeko epea.

*— Plazo para la utilización de los bonos.*

Bonuak 2023ko azaroaren 1etik 2023ko azaroaren 30era arte erabili ahalko dira.

*Los bonos podrán utilizarse del 1 de noviembre de 2023 hasta el 30 de noviembre del mismo año.*

Dagokion epearen barruan erabiltzen ez den bonoa balio barik geratuko da, eta ezingo da erabili. Erabili ez diren bonoen dirua ez da itzuliko.

*Los bonos que no se utilicen dentro del plazo correspondiente se quedarán sin valor. Los bonos no utilizados no serán reembolsados por el Ayuntamiento.*

— Non erabili daitezke bonoak.

*— Dónde se pueden utilizar los bonos.*

Bonoak kanpainara atxikitako Ordiziako establezimenduetan erabili ahalko dira, izan denda, edo bestelako zerbitzu. Edozein kasutan, kanpainan parte hartu edo ez, establezimendu bakoitzaren erabakia izango da. www.ordizia.eus udalaren webgunean argitaratuko da parte hartzen duten establezimenduen zerrenda. Kanpainan parte hartzen duten establezimenduetan kanpainaren kartela egongo da baita ere.

*Los bonos podrán utilizarse en los establecimientos de Ordizia que se hayan adherido a la campaña, ya sea tienda u otros servicios. En todo caso, la participación o no en la campaña será decisión de cada establecimiento. El ayuntamiento publicará la lista de los establecimientos participantes en su página web www.ordizia.eus. Asimismo, los establecimientos participantes en la campaña tendrán visible el cartel de la campaña.*

Kanpainatik kanpo geratuko dira aseguru eta aholkularitzak, azalera handiko saltokiak (frankizia propioa dutenak) eta gasolindegiak. Jokoari lotutako erosketak ezin izango dira bonoekin egin, loteria barne, eta ezta tabakorik ere.

*Quedan excluidos los seguros y asesorías, los comercios de gran superficie (con franquicia propia) y las gasolineras. Los pagos relacionados con el juego no podrán realizarse con bonos, incluida la lotería, ni tampoco el tabaco.*

Bezeroak bonu originalak aurkeztu eta entregatu beharko ditu erosketa egiten duen establezimenduan.

*La clientela deberá presentar y entregar los bonos originales en el establecimiento donde realice la compra.*

— Nola erabili bonoak.

*— Cómo utilizar los bonos.*

Bonoak frakzionatuta banatuko dira, 10 euroko hiru frakziotan; erosketa bakoitzean, gutxienez horietako frakzio oso bat erabili beharko da.

*Los bonos se distribuirán fraccionados en tres fracciones de 10 euros y cada fracción será indivisible, debiendo utilizarse en cada compra al menos una fracción completa de los mismos*

Erosketa tiketaren zenbatekoa bonuaren frakzioaren kopuru bera edota handiagoa izan beharko du.

*El importe del ticket de compra deberá ser igual o superior a la fracción del bono.*

Tiketak erositako elementuak deskribatu beharko ditu, bonuak baztertutako elementuak ordaintzeko erabili ez direla bermatzeko.

*El ticket deberá describir los elementos que han sido objeto de compra, para garantizar que los bonos no se han utilizado para el abono de los elementos excluidos.*

Erosketaren zenbatekoa bonuaren zenbatekoa baino txikiagoa bada, diferentzia ez da eskudirutan itzuliko. Hortaz bonu frakzio bakoitza erosketa edota kontsumizio bakoitzean osorik agortu beharko da.

*Si el importe de la compra es inferior al importe del bono, la diferencia no se devolverá en efectivo. Por lo tanto, cada bono deberá agotarse íntegramente en cada compra y/o consumición.*

**5.- Establezimenduak nola kudeatu behar ditu bonoak:**

***5.- Gestión de bonos por parte del establecimiento:***

— Bonoekin ordaindutako salmentak nola kudeatu.

*— Cómo gestionar las compras con los bonos.*

Establezimenduak bonoa, osoa edo frakzioka onartuko du erosketaren ordainketa modura. Bonu originala establezimenduak hartuko du eta salmenta tiketa atxikiko dio

*El establecimiento aceptará el bono como forma de pago, completo o en una o varias fracciones. El bono original se lo quedará el establecimiento y deberá adjuntarle el ticket de compra.*

Tiketak erositako elementuak deskribatu beharko ditu, bonuak baztertutako elementuak ordaintzeko erabili ez direla bermatzeko.

*El ticket deberá describir los elementos que han sido objeto de compra, para garantizar que los bonos no se han utilizado para el abono de los elementos excluidos.*

— ORDIZIAN Erakunde laguntzailea

*—Entidad colaboradora ORDIZIAN*

Erakunde laguntzaileak organo emailearen izenean eta kontura jardungo du diru-laguntzarekin zerikusia duten ondorio guztietarako, funts publikoak onuradunei eman eta banatuko dizkie, oinarri arautzaileetan hala ezartzen denean, edo diru-laguntza kudeatzen lagunduko du, jasotako funtsak aldez aurretik eman eta banatu gabe.

*La entidad colaboradora actuará en nombre y por cuenta del órgano concedente a todos los efectos relacionados con la subvención, entregue y distribuya los fondos públicos a los beneficiarios cuando así se establezca en las bases reguladoras, o colabore en la gestión de la subvención sin que se produzca la previa entrega y distribución de los fondos recibidos.*

Ordiziako Udalak, ORDIZIAN, Ordiziako merkatari elkartearekin elkarlanean banatuko ditu erosketa bonuen trukearen bidezko diru-laguntzen funtsak, eta diru-laguntzaren baldintzak eta eskakizunak betetzen direla egiaztatu ere bai.

*El Ayuntamiento de Ordizia en colaboración ORDIZIAN con la Asociación de Comerciantes de Ordizia, distribuirá los fondos de las subvenciones mediante canje de bonos de compra, verificando el cumplimiento de las condiciones y requisitos de la subvención.*

**6.- Programan parte hartzeko epea, modua, eta aurkeztu beharreko agiriak.**

***6.- Plazo, forma y documentación a presentar para tomar parte en el programa.***

Ordiziako Udalak salduko dituen erosketa

*Los establecimientos que deseen participar en*

bonoen programan parte hartu nahi duten establezimenduek oinarriak argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita bost eguneko epean egin beharko dute eskaera.

*el programa de bonos de compra que pondrá a la venta el Ayuntamiento de Ordizia deberán realizar la solicitud en el plazo de cinco días a partir del día siguiente al de la publicación de las bases.*

Programan parte hartzeko interesa izan dezaketen establezimenduek atxikitzeko eskaera ORDIZIAN elkartearen bulegoan egin beharko dute, presentzialki (Andre Mari kalea, 21) edo helbide elektroniko bidez: ordizian@ordizian.eus.

*Los establecimientos que deseen adherirse a este programa deberán presentar sus solicitudes en la oficina de ORDIZIAN, presencialmente (calle Andre Mari, 21) o a través del correo electrónico: ordizian@ordizian.eus.*

Eskaerak ORDIZIAN elkartearen bulegoan aurkezteko ordutegia honakoa da:

*El horario de presentación de solicitudes en la oficina de ORDIZIAN es el siguiente:*

Astelehenetik ostiralera: 9:00-14:00

*De lunes a viernes de 9:00 a 14:00*

ORDIZIAN elkarteak banakako atxikimendu eskaera guztiak udal erregistroan aurkeztuko ditu

*ORDIZIAN presentará todas las solicitudes de adhesión individuales en el registro municipal.*

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

*Documentación a presentar:*

a. Eskaera orria

*a. impreso de solicitud*

b. Pertsona fisikoa izanez gero, eskatzailearen NANa.

*b. en el caso de ser persona física, DNI del solicitante.*

c. Pertsona juridikoa izanez gero, eskatzailearen IFKren kopia.

*c. En el supuesto de ser persona jurídica, copia del CIF del solicitante.*

**7.- Parte hartuko duten establezimenduen betebeharrak.**

***7. Obligaciones de los establecimientos participantes.***

Ordizian erosteko bonuen programan parte hartzeko eskaera orria aurkeztu duten establezimenduen betebeharrak hauek izango dira:

*Los establecimientos que hayan presentado solicitud para participar en el programa de bonos a la compra en Ordizia, deberán cumplir los siguientes requisitos:*

a. Atxikitako establezimenduak konpromisoa hartzen du programara atxikita dagoela adierazten duen ikur itsaskorra eta publizitate materialak saltokian jaso eta ikusteko moduan jartzeko.

*a. El establecimiento adherido se compromete a colocar el símbolo de adhesión al programa y los materiales publicitarios en un lugar visible del establecimiento.*

b. Atxikitako establezimenduak bono bakoitza dagokion erabilera epearen barruan

*b. El establecimiento adherido se compromete a controlar que los bonos se utilizan dentro de*

erabiltzen dela kontrolatzeko konpromisoa hartzen du, bezero bakoitzak bono oso (30€) bat baino gehiago ezin dituela erosketa bakarrean erabili kontrolatzekoa, eta bonoa benetakoak ez dela zantzuak hartzen badizkio, ez onartu eta salatzekoa.

*su periodo válido de vigencia, que cada persona no puede utilizar más de un bono completo (30€) en la misma compra, y que si se percibiera que el bono tiene indicios de ser falso, no se acepte y se denuncie.*

c. Hobaritutako zenbatekoaren itzulketa eskatzeko, saltokiak salmentaren frogagiriak; hau da, behar bezala betetako erosketa bonoa eta faktura edo erosketa tiketa ORDIZIAN elkartearen bulegoan utzi beharko ditu.

*c. Para solicitar la devolución del importe bonificado, el establecimiento deberá entregar en la oficina de ORDIZIAN el bono de compra debidamente cumplimentado y la factura o ticket de compra.*

Tiketak erositako elementuak deskribatu beharko ditu, bonuak baztertutako elementuak ordaintzeko erabili ez direla bermatzeko.

*El ticket deberá describir los elementos que han sido objeto de compra, para garantizar que los bonos no se han utilizado para el abono de los elementos excluidos.*

d. Erosketa bonuen erabiltzaileei ez zaie itzuliko erosketaren eta erosketa bonuaren balioaren arteko diferentzia.

*d. No se devolverá a las personas usuarias de bonos de compra la diferencia entre la compra y el valor del bono.*

e. Erosketa bonuen bidez erositako ondasunen itzulketa politikari dagokionez, saltoki bakoitzak zehaztuko du noiz eta nola egin itzulketa. Halere, erosketa bonoarekin eskuratutako produktua itzultzen bada, ez da eskudirutan itzuliko. Aitzitik, saltoki bereko beste produktu batekin ordezkatuko da, edo erosleak ordaindutako zenbatekoa eskudirutan ordainduko zaio; kasu horretan, erosketa bonoen deuseztapenaren berri eman beharko da, eta jasotako zenbatekoa itzuli beharko du saltokiak.

*e. En cuanto a la política de devolución de los bienes adquiridos mediante bonos de compra, cada establecimiento determinará la fecha y forma de la devolución. No obstante, si se devuelve el producto adquirido con el bono de compra, no se devolverá en valor de dicho bono efectivo. Se podrá sustituir por otro producto en el mismo establecimiento o se le abonará el importe pagado por el comprador en metálico, en cuyo caso, el establecimiento deberá comunicar la anulación de los bonos de compra y devolver el importe recibido.*

Parte hartutako saltokiekin harremanetan jarri ahal izango da, funtzionamendua egiaztatzeko eta oro har prozesuaren eta programaren inguruan zer iritzi duten egiaztatzeko.

*Se podrá contactar con los establecimientos participantes para comprobar su funcionamiento y opinión sobre el proceso y el programa en general.*

**8.- Erakunde laguntzailearen betebeharrak.**

***8.- Obligaciones de la entidad colaboradora.***

1. ORDIZIAN merkatari elkarteak, diru-laguntza kudeatzen laguntzen duen erakundea den aldetik, jarduera hauek egingo ditu:

*1. La Asociación de Comerciantes ORDIZIAN, como entidad colaboradora en la gestión de la subvención, realizará las siguientes actividades:*

a. Programa orokorrean hedatzea, bere webgunean, sare sozialetan eta

*a. Difusión del programa en general en su página web, redes sociales y medios de*

komunikabideetan, bai banaka, txikizkako saltoki guztiei.

comunicación, así como individualmente a todos los comercios minoristas.

b. Interesa duten saltokiei informazioa ematea eta programarako atxikimendua formalizatzeko laguntza ematea.

*b. Información a los comercios interesados y apoyo para la formalización de la adhesión al programa.*

c. Ordiziako Udalak emango dizkion bonuen salmenta kanpaina bakoitzean, egiaztatuz baldintzak betetzen direla. Bonuen erosleen zerrenda zehatza gordeko da.

*c.- Venta de los bonos facilitados por el Ayuntamiento de Ordizia en cada campaña, comprobando que se cumplen los requisitos de establecidos. Se guardará una lista exacta de las personas compradoras de los bonos.*

d. Hobaridun salerosketa bakoitzaren eskakizunak bete direla egiaztatzen kolaboratzea; salerosketa hori bonoekin eta faktura edo erosketa tiketa aurkeztuta egiaztatuko da.

*d. Colaborar en la verificación del cumplimiento de los requisitos de cada compraventa bonificada, que se acreditará mediante bonos y presentación de factura o ticket de compra.*

e. Erosketa bonuen kudeaketa, establezimendu bakoitzari dagozkion kopuruak banatuz, Ordiziako Udalak 15 egunean behin bideratuko dion kopuru orokorretik.

*e. Gestión de bonos de compra, distribuyendo las cantidades correspondientes a cada establecimiento de la cantidad global que el Ayuntamiento de Ordizia le destinará cada 15 días.*

f. Udalari kudeaketaren berri ematea, eta bonoen erabileraren justifikazioa aurkeztea.

*f. Informar al Ayuntamiento de la gestión realizada y presentar justificación del uso de los bonos.*

Betebehar orokorrak izango dira, halaber, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 15. artikuluan ezarritakoak.

*Serán asimismo obligaciones genéricas las establecidas en el artículo 15 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones.*

2. Jarduketa horiek gauzatzean, negozioaren eta pertsonen datuei dagokienez konfidentzialtasun eta isiltasun betebeharrak bete beharko ditu. Egiaztapen lanak egin ondoren, dokumentazio guztia Ordiziako Udalera bidali beharko da.

*2. En el ejercicio de estas actuaciones deberá observar los deberes de confidencialidad y sigilo respecto a los datos del negocio y de las personas. Una vez realizadas las comprobaciones, toda la documentación deberá ser remitida al Ayuntamiento de Ordizia.*

Erabat debekatua dago establezimenduetan diskriminazio edo tratu desberdintasunak egotea, batez ere elkarteko kide izatearekin edo ez izatearekin.

*Queda terminantemente prohibido en los establecimientos la diferencia de trato o discriminación, por motivo de ser asociado o no.*

**9.- Programan parte hartu duten saltokietan jaso dituzten erosketa bonuak trukatzeko prozedura.**

***9.- Procedimiento de canje de los bonos de compra recibidos en los comercios participantes en el programa.***

Herritarren artean banatutako bonoen trukea egiteko, jasotako erosketa bonuak eta erosketaren faktura edo tiketa eraman beharko

*El canje de los bonos distribuidos entre la ciudadanía se realizará mediante la entrega en*

dira ORDIZIAN elkartearen bulegora. Elkartea bonoak jasotzen joango da eta trukea 15 egunean behin burutuko da. Hobariaren xede den zenbatekoa dokumentazioa egiaztatu ondoren ordainduko da, jaso eta hamabost eguneko epean eta banku transferentzia bidez.

*la oficina de ORDIZIAN de los bonos de compra recibidos y la factura o ticket de compra. La asociación irá recogiendo los bonos y el canje se realizará cada 15 días. El importe objeto de bonificación se abonará, una vez comprobada la documentación, en el plazo de quince días desde su recepción y mediante transferencia bancaria.*

— Udalarekin, ORDIZIAn erakunde laguntzailearen bitartez, bonoen likidazioa egiteko epemuga.

*— Fecha límite para la liquidación de bonos con el Ayuntamiento a través de la entidad colaboradora ORDIZIAN.*

Establezimenduak ORDIZIAn Ordiziako Udalaren erakunde laguntzaileari bonoen likidazioa aurkezteko azken eguna 2023ko abenduaren 15a da.

*La fecha límite para que el establecimiento presente la liquidación de los bonos a ORDIZIAN, entidad colaboradora con el Ayuntamiento de Ordizia será el 15 de diciembre de 2023.*

**10.- Ikuskatzea eta ez-betetzeak.**

***10.- Inspección e incumplimientos.***

Ordiziako Udalak, programaren arduradun den heinean, egokitzat jotzen dituen egiaztapen, ikuskapen eta gainerako kontrol guztiak egin ahal izango ditu ziurtatzeko baliabide publikoak ondo erabiliko direla eta laguntza programa hau modu egokian garatu eta aplikatuko dela

*El Ayuntamiento de Ordizia, como responsable del programa, podrá realizar cuantas comprobaciones, inspecciones y demás controles estime oportunos para asegurar el correcto uso de los recursos públicos y para verificar el correcto desarrollo y aplicación del presente programa de ayudas.*

Saltoki atxikiek ez-betetzeren bat eginez gero, Ordiziako Udalak erosketa bonuen programara duten atxikipena bertan behera utzi dezake, eta ez-betetzearen ondoriozko neurriak aplikatu.

*En caso de incumplimiento por parte de los comercios adheridos, el Ayuntamiento de Ordizia podrá cancelar su adhesión al programa de bonos de compra y aplicar las medidas derivadas del incumplimiento.*

Atxikitako establezimenduak behartuta daude Ordiziako Udalak laguntzen zertarakoa fiskalizatzeko eskatzen dien informazio guztia ematera.

*Los establecimientos adheridos están obligados a facilitar cuanta información les sea requerida por el Ayuntamiento de Ordizia, en el ejercicio de sus funciones de fiscalización del destino de las ayudas.*

**11.- Araudi aplikagarria**

***11. Normativa aplicable***

Oinarri hauetan ezarri gabeko guztiari dagokionez, xedapen hauek aplikatuko dira: Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.

*En todo lo no previsto en estas bases será de aplicación la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.*